




Altzo Azpiko zerrategiari buruzko epaia eman dute jakitera

SALAKETA ▶ Herritar bati arrazoia eman dio epaitegiak, obrak «legez kanpokoak» direla argudiatuta

ERANTZUNA ▶ Urbizu enbalaketak enpresak eta Udalak deklaraziorik ez egitea erabaki dute oraingoz ▶ 5



Altzo Azpi auzoan dagoen zerrategia. N. URBIZU



N. URBIZU

Berastegiko mihiluzeekin solasean

TOLOSALDEA ▶ Amaia Azkue, Olatz Etxeberria eta Garbiñe Ezkerra ariko dira bihar Kike Amonarriz tolosarrak gidatutako 'Mihiluze' saioan ▶ 6

TOLOSA ▶

Sutea Kale Nagusiko etxe batean ▶ 3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Aurrera-Saiazek bai, Aurrera Leitzak ez

Lehenek darraite Berria Txapelketan ▶ 7

MIKEL SAIZAR ▶ FUTBOLARIA

«Realarekin hitz egiten ari gara kontratua berritzeko»

Pontevedrara joatear zela, Arconadak Realeko 3. atezain izatea proposatu dio ▶ 2

ZABALA

KAFEAK

ONDO PASA
INAUTERJETANI!



Nafarroa etorbidea, 2
Nagusi enparantza, 2

TOLOSA
ORDIZIA

Tlf.: 943 65 47 95
Tlf.: 943 88 29 88

TOLOSA ▶ SUTEA



Kale Nagusiko etxe batek su hartu du

N. Lataburu ▶ Atzo goizean jazo zen ezbeharrak, Kale Nagusiko 32. zenbakiko laugarren solairuan sua piztu zenean. Goiz guztian zehar suhiltzaileek lanean jardun zuten sua itzaltzeko —argazkian ikus daitekeen— eta eguerdi partean lortu zuten erabat itzaltzea. Kalte materialak handiak izan ziren eta etxebizitzan zegoen emakumea Asuncion erietxera eraman behar izan zuten, kearen ondorioz. Oraingoz kaltetuak senideen etxeetan edo erabeketan banatuko dituzte, erabaki berria hartu artean. **N. LATABURU**

GUTUN@K ▶

Ikastolako Juaniri

Laskorain Ikastolako ikasle ohi eta guraso talde bat gara eta lerro hauen bitartez Juaniri gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu. Bizitza osoa Ikastolaren alde lanean eman du, eta jubilatzeke garaia iritsi zaio, ederki irabazita, gainera.

Duela urte dezente lehenengo euskal udalekueetan izugarriko lana burutu zuen, ondorengo urteetan jarraipena izan duena, hortxe daude Kazkabarra, Euskaraz Bizi udalekuak,..... ametsak egi bihurtu zitezkeela erakutsi digu.

Ikastolen mugimendua Juani gabe, beste asko gabe bezalaxe, pentsatzea ezinezkoa litzateke. Berak erakutsi digu Ikastolen mugimendua duen garrantzia, hezkuntza sistema propio baten beharra, gure hizkuntza eta kultura belaunaldi batetik bestera transmititu beharra, eta, azken finean, Ikastola ikastetxe bat baino haratago doan mugimendua dela.

Gutako askorentzat bigarren amato bat izan da, beti gazteon defentsan, beti laguntzeko prest. Baina ziur gaude berak urte luze hauetan ere indako lanak bere fruituak ematen eta emango dituela. Lehen ikasle ginen, orain guraso, baina Juaniren amets guztiak egi bihurtzeko lanean jarraitzeko asmoa dugu Ikastolaren mugimendua baitan.

Muxu handi bat eta eskerrik asko, Juani.

XABIER ZUBELDIA (LASKORAINO IKASLE OHIEN IZENEAN) ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

«Norgehiagoka ona egin arren», porrota jaso du Laskorainek

3 eta 2 galdu zuten horitxoek, hiru segundo falta zirenean, Astigarragan Ceramicas Nogalesen aurkako derbian

ERREDAKZIOA

Ikastolakoek 3 eta 2 galdu zuten iragan larunbatean Ceramicas Nogalesen aurka Astigarragan jokaturako derbia, azken gol erabakiorra amaierarako hiru segundo falta zirenean jaso zutelarik. Joko intentsoa, ahalegin ikaragarria bi taldeen partetik eta markagailuko berdintasunak sorturiko emozioa. Hau da, «derbietako bakailu, txuleta eta gazta eta menbrilloa», hain zuzen ere.

Norgehiagoka ez zen batera ondo hasi horitxoentzat, lehen minutuetan Nogalesekoak izan baitziren jokoaren jaun eta jabe. Honela, korner batean, partidako lehen gola etxekoen zakura erori zen, eta horitxoek lan dezente egin behar izan zuten aurrerantzean.

Gol honetatik aurrera, ordea, eta defentsan eginiko doitzea tarteko, joko horitxoaren aldera desorekatu zen nabarmen, eta minutuak aurrera joan ahala berdinketarako gol aukerak

bata bestearen atzetik hasi ziren etortzen. Nogalesekoak atezain tolosarragatik batzuetan (Legarrak eta Arregi atezain horitxoak partida oso burutu zuten), punteria erdoilduagatik besteetan, aukera guztiak erratu ziren, baina.

Atsedendialdiaren ostean, gainera, laskoraindarren baloi galera bat aprobetxatuz, Nogalesekoek bigarrena sartu zuten, gauzak are eta zailago ipiniz. Jokoaren dinamikak, ordea, «berean iraungo zuen», eta

beste gol aukera dezenteren ondoren, Gilek lehendabizi eta Barriolak beranduxeago sartutako goleak partida berdindu zuten.

Baina azkenean binako berdinketa amaierarako hiru segundo falta zirenean hausti zen, Nogalesekoak alde. Partida bukaeran tristura nagusi zen taldean eta, haien esanetan, «patuak erabakitzen du horrelakoetan eta patuaren epaia onartu egin beharra dago eta kitto».

«Partida ederra jokatu arren», ezin izan zieten Alonso, Domentxe eta Zubillaga jokalaririk lesionatuei punturik eskaini, Javi delegatuak, Egizabal entrenatzaileak eta Arregi, Yustos, Telletxea, Saldias, Gil —haserako bostekoa— Amatriain, Barriola, Calixto eta Murgi jokalariek.

Harrobian gauzak hobeto joan ziren asteburuan. Alonso *Mourinho*-ren taldeak 1 eta 9 gailendu zitzaion Interren filialari eta Murua *Camacho*-renak 2 eta 5 irabazi zuten kanpoan.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Muriedas taldeak bisitatu zuen pasa den asteburuan Ibarra Belabietako kiroldegia. Etxekoak «oso erraz» gailendu zitzaizen Kantabriako (Espainia) taldeari, Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak jakitera eman bezala. Neurketa Ibarra nagusitasun osoz hasi zen, eta aurkariak ezin zuten areatik irten ere egin. Zaletuek jokalari guztien gola aldarrika-

«Erraz» hartu du mendean Ibarrak Muriedas taldea, 7-3ko emaitzarekin

zuten zuten, baina lehen minutuetan ez zen heldu. Hori izan zen, hain zuzen ere, Muriedasekoei indarra eman ziena eta joko orekatu egin zen. Baina orduntxe ailegatu zen ibartarren lehenengo gola, bi minutu beranduago bigarrena lortu zute-

larik. Lehen zatia 4 eta 1ekoarekin amaitu zuten.

Bigarrenengoan ere gauzak ondo burutu zituzten etxeko mutilek, eta beste 3 gol sartu ahal zituzten; kanpotarrek ere 2 gol egin zituzten zati honetan. Azken emaitzak gol festa isla-

tzen zuten, beraz, eta Inauteririk pozik igarotzeko aitzakia bikaina izango dute.

Kadeteak, aldiz, Donostian galdu zuten, 3 eta 2, Maria Auxiliadora taldearen aurkakoan. Hala ere, lidergoan jarraitzen du taldeak.

INAUTERIAK ▶

Inauterietako Balkoien I. Lehiaketa, Amarotzen

N. LATABURU

Amaroz auzoak Inauterietako Balkoien I. Lehiaketa antolatu du festa hauetan. Parte hartu nahi duten auzokideek euren balkoiak *mozorro*tu behar dituzte. Epaimahaik (Maite Sanchez, Juan Bautista Aranzabe eta Guillermo Benito) erabakiko du Inauterietan itxura ondoen erakutsi duen balkoia zein izan den. Irabazleak 100 euro jasoko ditu.

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Haur ugari malabare tailerrean

I. Garcia ▶ 30 bat haur bildu ziren Onddo Gazte Asanbladak antolatutako malabare tailerrean. Hainbat malabare probatzeaz gain, haurrek aurpegia margotuz zituzten eta pilotak egin zituzten arroz aleekin. Antolatzaileak «gustura» agertu dira sortutako giroarekin: «Jendeak ondo pasatzea lortu genuen, material apur batekin eta ilusio handiarekin». Gurasoek eskertu zieten ekitaldia antolatzea. Onddokoek Gaztetxean dituzten malabare materialak erabiltzeko gonbita luzatu dute. HITZA

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Erleen dantza Inauterietako ekitaldian

I. Garcia ▶ Inauteriak gerturatzen ari dira eta Villabonako Arroa auzoan dagoen Fleming eskolakoak, beste hainbat eskoletan bezala, jendeurrean egin behar duten ekitaldiaren entsegua egiten. Aurten erlez jantziak dira eta mundu hori landu dute geletan: erleak non bizi diren, zer ekoizten duten... Urtero baliatzen dute Inauterietako ekitaldiaren mozorroa gai hori ikasturteko curriculumean sartzeko. Haurrek mozorroak egiten laguntzen dute ere eta horrekin eskulanak lantzen dituzte. HITZA

ASTEASU ▶ HISTORIA

Espainiako Gerra Zibilean fusilatutako herritarrak oroitzuz

Angeles Uzkudun asteasuarraren oroitzapenak, 'Herio 1936' liburuxkan

IMANOL GARCIA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Lekukotzak* sailaren beste liburuxka bat argitaratu du, *Herio 1936*. Argitalpenean Espainiako Gerra Zibilean fusilatutako asteasuarrak oroitzen dira. Angeles Uzkudun asteasuarrak guda hartako oroitzapenak idatzi ditu *Aiurri* aldizkarian, eta material hori bilduz osatu dute liburuxka.

Argitalpenaren aurkezpena Asteasuko uleletxean egin zuten, eta bertan izan ziren Angeles Uzkudun bera, Jon Unanue Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren lehendakaria eta Iñaki Amenabar alkatea. Una-



Iñaki Amenebar, Angeles Uzkudun eta Jon Unanue. I. GARCIA

nuek azaldu zuenez, «Gerra Zibilaren 70. urteurrena beteko den urte honetan, omenaldi xume bat egitea nahi genuen fusilatuei zein beren familiei».

Gibelasmorik gabe eginiko idatziak direla azpimarratu zuen Unanuek. «Fusilatuen eta inguruko enbuek jaso zuten da. Guztiak azaltzen dira:

inongo justiziarik gabe tiroz josi eta gero lurperatu zituztenak».

Uzkudunek 86 urte ditu egun eta, beraz, guda Asteasura iritsi zenean 16 urte besterik ez zituen. «Familiak herriko telefonoa zuen eta horregatik baserriko eta kaleko jende asko ezagutzen genuen», azaldu dio Htzari. Familiako inor ez fusilatu ez bazuten fusilatu, gertuko jendea izan zen. «Asko sufritu genuen. Halako ederki bizi ginen eta bat batean gerrak dena aldatu zuen».

Herio 1936 liburuxka Asteasuko etxeetan banatuko da eta baita etzi argitaratuko den *Aiurri* aldizkariarekin batera ere.

VILLABONA ▶

Guridiren egoera salatzen du manifestazioa

ERREDAKZIOA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestazioa antolatu du gaur, Iñigo Guridi herritarra atxilotu zutela bost urte betetzen diren egunean. Manifestazioaren hasiera 19:30ean izango da, Errebote plazan. Ekitaldiarekin, Guridiren «Euskal Herriratzeta eta askatasuna» eskatzeaz gain, «legez kanpoko isolamendu politika krudela» salatuko dute.

Antolatzaileek azaldu dutenez, billabonatarrek «espetxean pasatu dituen bost urte hauetan oso bizi baldintza gogorrek ezagutu ditu; izan ere, denbora gehienean isolamendu egoeran eduki dute, baita gaur egun ere».

iragarki laburrak ▶



Albiztur. Zatituriko baserria salgai. Berrikuntza behar du. 200 m²-ko hiru solairu eta 35.000 m²-ko lursailarekin.

Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzeke. Informazio pertsonala.

Andoain. 80 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Iggailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza, garajea aukeran.

Berastegi. Familia bakarrarentzako etxea salgai. 4.000 m² dituen lursailarekin.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza. Berritua.

Donostia. Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m²-ko lursailarekin.

Ibarra. Berritutako etxebizitza beheko solairuan, 30 m²-ko

bulegoarekin.

Irura. Laskibar aldean, eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m²-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean. Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berria azken etxebizitza salgai. 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Oria kalean, 40 m²-ko lokal komertziala, tarteko solairuarekin, alokairuan edo salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabelen, marixan dagoen lokal komertziala salgai. Informazio pertsonala eskaintzen dugu.

Tolosa. Gernikako arbolan, 35 m² dituen lokal komertziala salgai. 35 m²-ko sotoarekin.

Tolosa. Maituna zonaldearen atzealdean, trasteleku berriak salgai. 8.600 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala alokairuan. Guztia erakusleho.

ALTZO ▶ EKONOMIA

Altzo Azpiko zerrategiak ez du obrekin aurrera egiteko baimenik, legearen arabera

Altzoko bizilagun baten salaketari arrazoia eman dio Donostiako epaitegiak, obrak egiten hasi zirenetik «legez kanpokoak» direla arrazoituta



Altzo Azpin dagoen zerrategian lanean jarraitzen dute. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Lau bat urte igaro dira Altzo Azpi auzoko zerrategiaren inguruko arazoak hasi zirenetik. Urbizu enbalaketak S. L. enpresak jarri zuen zerrategia, baina herritar batek ez zuen begi

onez ikusi enpresa hor kokatzea, eremu «desegoki» batean zegoelako eta modu «ilegal» batean jarri zelako.

Herritarrek berak HITZARI azaldu dionez, Altzoko Udalak obra lizentzia «behar baino lehenago» eman zion zerrategi-

ko enpresari, eta jarduera lizentzia beranduago.

Altzotarrak enpresa auzitara eraman zuela eta, eta irregular-tasunak zirela medio, «disun barragarria» ordaintzea agindu zien Udalak enpresakoei. Ondorioz, obra gelditu bazuten

ere, berriz ere hasi ziren lanean, 15 egunetara, altzotarraren esanetan.

Herritarrek egoera salatu egin zuen orduan, «emandako irregular-tasunak zirela medio, eta indarrean dagoen legedia betetzen ez zela ikusita». Udalak, bere aldetik, obrak etetea erabaki zuen honen aurrean. Hirutan dekretu bidez eskatu zioten horixe enpresari, baina hala ere obrek aurrera darraitela ziurtatzen du altzotarrak.

«Zerrategia egiteko Udalak bazuen aukera, baina ez erabakitako lekuan; izan ere, ur mugimenduak claude, Iparraldeko konfederazio hidrografikoaren arabera. Aurrera jarraitu zuten, baina gaizki».

Urtarrilaren bukaeran Altzoko bizilagunak jarritako salaketaren erantzuna jaso zuen: epaileak arrazoia eman zion. Obren etenaldiaren kautelazko neurriak hartzea agindu zuen, Luberrri deituriko lursailean. Hala ere, herritarra ez dago guztiz pozik: «Dekretua izan arren, ez da aurrera eramaten ari, eta lanak ez dira gelditu».

Bai Altzoko Udalak eta bai Urbizu enbalaketak enpresak deklaraziorik ez egitea erabaki dute, eta ebazpen bat ematen denean hitz egiteko eta haien iritzia emateko prest egongo direla esan diote HITZARI.

GAZTERIA ▶

Gazte Olinpiadak antolatu dituzte martxoaren 11n

Martxoaren 11n Gazte Olinpiadak egin nahi dituzte, eta horretarako eskualdeko Gazte Asanbladei dei egin diete. Hala, bilera irekia antolatu dute gaur, 19:30ean, Kultur Etxean. Olinpiada hauen nondik norakoak jakiteko eta informazioa jasotzeko baliatuko dute hitzordua, eta egingo dituzten ekintzak nahiz kirolak ere zehaztuko dituzte.

PILOTA ▶

Euskadiko Kluben Txapelketako finalaurreak

Asteburuan jokaturako partiden artean garaipen anitz izan ziren Zazpi-Iturrikoen eta Aurrera-Saiazekoen eskuak. Hainbat mailako pilotari finalaurrekoetan ariko dira. Aurrera-Saiazeko senior mailakoak pasatu dira, bai eskuz banaka, bai binakakoan. Zazpi-Iturrikoen aldetik jubenen bikotea pasatu da, senior mailako bikotea eta eskuz banakakoa bezala.

TOLOSA ▶

Pintxanak blusak itzultzeko eskatu du

Pintxana txarangako partaideek Inauterietarako blusak behar dituzte. Urteetan zehar txaranga horretan parte hartu dutenek eta blusa utzi ez dutenek bueltatzea eskatzen dute, aurtengoek behar dituzte eta.

hitza *lagunen*
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

BERASTEGI ▶ TELEBISTA

Mihiluzeenaren bila

Berastegiko hiru neska alai ariko dira bihar ETB1eko 'Mihiluze' saioan, Euskal Herriko lotsagabeenak eta barregarrienak direla frogatzeko

NEREA URBIZU

Laster Mihiluze lehiaketa Kike Amonarrizekin zioen kartelak berez zioena baino gehiago zioen gure Berastegiko protagonistentzat. Antzerkia egiteari zor diote dena hiru neska hauek.

Kike Amonarriz tolosarra, Mihiluze saioaren aurkezlea, Berastegira joan zen hitzaldi bat ematera, eta bertan gazteen euskararen erabilera izan zuen hizpide. Berastegiko Olatz Etxeberria, Garbiñe Ezkerra eta «Berastegin bizi den Villabonako» Amaia Azkue harekin mintzatu ziren. Paperen bat edo beste ba ote zegoen galde-tu zioten; izan ere, hirukote jator hau Berastegiko antzerki taldeko kide da, eta zerbait egiteko gogoia zuen. Amonarrizek hauen telefonoa eskuratu eta handik denbora batera dei bat jaso zuten gazte hauek.

Telebistako saio berri baterako zela aipatu zieten, eta proba bat egitera deitu zituzten. Bertan, txiste bat kontatu eta antzeztu behar izan zuten, alde z aurretik prestaturik. Horren ondoren, haien burua aurkeztu behar izan zuten kamararen aurrean. Nonbait, telebistakoei gustatu, eta handik bi egunetara deitu egin zieten, onartuta zeudela esateko.

Beste bi talderekin lehiatu dira, eta 7 proba egin behar



Amaiak, Olatzek eta Garbiñek ez dute gehiegirik behar barre egiteko. N. URBIZU

PROTAGONISTAK ▶

AMAIA AZKUE

Berastegiko billabonatarra. 22 urte ditu. Gustuko ditu antzerkia eta barre egitea. Koadrilako mugituena da. Gizarte hezitzailea da, eta Erreterian egiten du lan.

OLATZ ETXEBERRIA

Berastegi. Ikus-entzunezko produkzioa ikasten ari da. Hau ez du telebistako lehenengo esperientzia, *Kuxkuxeroak* saioan aritu baitzen, jendea zirikatzen. 21 urte ditu.

GARBIÑE EZKERRA

Berastegi. Haur Eskolako irakaslea da eta gaur egun horretan ari da lanean. 24 urte ditu. Bere lagunak bezala, barre egitea gustuko du.

GIKE AMONARRIZ ▶ AURKEZLEA

«Euskal umoreak nekazal munduan eta umore erdaldunean du oinarria»

Mihiluze saioaren aurkezlea da tolosarra. Hitzaldien artean aritu da solasean Hitzarekin.

Mihiluze: saio didaktikotzat ere har daiteke...

Nik uste dut kontrakoa. Antididaktikoa dela esango nuke. Azken finean, saio jostagarri izan nahi du, dibertigarria. Beste gauza bat da saioak berak erabiltzen dituen gaiak interese-koak izatea. Helburua ez da irakastea, ondo pasatzea baizik.

Euskal umorea esistitzen al da?

Noski esistitzen dela; euskal umorea badago. Bada denbora horretaz gainera.

Ba al dago herri bat beste

bat baino umoretsuagoa dena?

Jendea da umoretsua, momentuak, sozialki laguntzen duten egoerak ere badira... Herri batek senti dezake umore gehiago beste batean baino. Tolosako Inauterietan hemengo jendea umoretsuagoa dago, garaia eta uneak horrelakak direlako...

Zertan datza euskaraz barre egitea? Non dago gakoa?

Orain arte hizkuntza ez da normalizatua egon, ez dago oraindik ere. Gure umoreak umore erdaldunean du oinarria, eta nekazal giroan beste aldetik. Euskara gehiago egiten den

neurrian era natural batean ikusiko dugu euskal umorea.

Umorea: garaia baldintzatu du, beste eskola bat sortu dugu, moda kontua da, orain sortzen ari gara ohitura...

Lehen esan bezala, nekazal bizimoduarekin oso lotuta dago, eta euskara hizkuntza bezala ere ezin izan dugu era normal batean erabili. Baina gaur egun, euskarazko zinema umoretsuaz hitz egin dezakegu, euskarazko telebista eta literatura umoretsuaz ere hitz egin dezakegu... Ohitura bat sortzen ari da, tradizio bat, nolabait esatearren.

'Wazemank', 'Vaya Semani-



KARLOS CORBELLA / ARGIA

ta'... Euskal umorea aldarrikatzen dute biek ere. Zer iritzi duzu?

Bai: aldea hizkuntzan dago, zailtarik gabe. *Wazemank*-ek umore ekarpena egin du, urratsak eman ditu, eta baita berrikuntzak ere. Aberastasuna da hori, eskaintza ugartuz doanez. Estiloak areagotu dira.

'Mihiluze' asko al dago?

Dudarik gabe. Zorionez, gero eta gehiago! Duela urte batzuk oso zaila zen jendea telebistara erakartzea; zertara, eta umore lehiaketa batera. Orain baskarrik zaila da. Kostatzen zaio jendeari, hirukoteak osatzea ere ez da erraza izan. Gainera, masa soziala ez da handia. ◀

BERRIA PILOTA TXAPELKETA ▶

Azken kanporaketan, Aurrera-Saiaz aurrera eta Aurrera kanpora

Final-laurdenetarako sailkatuta, Bidegoingo taldeak Lemoaren aurka jokatu du datorren martxoaren 12an



Belloso oso ongi aritu zen leanean. N. U.



Aurrera taldeak egin ditu aurtengoak txapelketan. A. C./ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Igaro berri den asteburuan zirt edo zart-ekoa egin dute III. Berrria Pilota Txapelketan parte hartzen ari diren Tolosaldeko eta Leitzaldeko bi taldeek: Bidegoingo Aurrera-Saiazek final-laurdenetarako sailkapena eskuratu du, garaipenaren zirtezi esker; Leitzako Aurrera, berriz, jokoz kanpo gelditu da, zartakoa jasota.

Gipuzkoarrek Huarteren aurka jokatu zuten igandean, Hernanin, eta hiru partidutatik bi irabazita, 53 eta 39ko emaitzarekin gailendu ziren. Emaitzak hala islatzen ez bada ere, 22-6koarekin, kadeteetako partidua izan zen lehiatua: lan asko egin zuten etxekoek, ongi bateratutako bikotea izanik, Agiriano oso fin aritu zen, hutsik egin gabe. Gazteei dago kienez, 6nako berdinketa arte orekatuta joan ziren bi bikoteak, baina Garralda atzelari nafarrak abiadura erantsi zion jokari eta erraz nagusitu ziren.

ETXEKOAK BERRIA TXAPELKETAN ▶ EMAITZAK

AURRERA-SAIAZ 53/ HUARTE 37
Kadeteak. Oiarzabal-Agriano 22 / Bidaurre-Jaunarena 06.
Gazteak. Irazusta-Telletxea 09 / Garralda-Beroiz 22.
Nagusiak. Belloso-Oteiza 22 / Errea-Tabar 11.

Helduetan, lehiakorrena izatea espero zen, bi eskoletako hoberenen arteko talka izanik: Belloso eta Tabar nabarmendu ziren, talde banetan; 10. tantan, ordea, nafarrak min hartu zuen ezker eskuan eta Belloso pilotak aldaketarekin ere asmatu zuelarik, sakeak, pilotakadak, guztia egiten asmatu zuen, garaipena eskuratu zuen. Hurrengo saioa martxoaren 12an izanen du, Lemoaren aurka, hain zuzen ere, leitzarrak kanporatu zituen taldea, bizkaitarra.

AURRERA 36/ LEMOA 63
Kadeteak. Alduntzin-Berjera 22 / Arrese-Martin 19.
Gazteak. Sagastibelza-Beloki 07 / Fernandez-Gojenola 22.
Nagusiak. Perez-Iriarte 07 / Erauskin-Erauskin 22.

Aurrerak 36, Lemoak 63; horrela bukatu zen bi taldeen arteko kanporaketa. Honetakoan ere, kadeteetako partidua suertatu zen ikusgarriena, oso borrokaturik, tanto politekin, Alduntzin eta Berjera ere oso ongi aritu ziren. Beste bi mailetan, berriz, Erauskin anaien erakustaldia izan zen nabarmenezkoa, leitzarregan Bete-luren edota Lansaloten falta nabaritu zelarik, eskuko mina izateagatik, azken orduan ordezkatu beharrean aurkitu baitzen Aurrera. Aurtengoz, Berrria Txapelketari agur esan dio Leitzako taldeak, hortaz.

LEITZA-ARESO ▶ ELIZA

Xabierko bederatziruuren ekitaldietara autobusa

Martxoaren 8an egingen dute mendialdeko elizbarrutiek; txartelak salgai jarri dituzte

J. ASTIBIA

Xabierraldien atarian, mendialdeko elizbarrutiek Bederatziruuren egitekoak dira, datorren hilaren 8an, Xabierko Frantzisko Donearen gazteluan. Horien artean daude Leitzako eta Aresoko elizbarrutiak ere, eta egun hauetan harako antolakuntza eta bidaia prestatzen ari dira.

Atzo jakinarazi zuten, Bederatziruuren horretara joateko autobusa antolatuko dute eskualdetik, eta Xabierren egingen dituzten funtzio horietara joan nahi duen orok, dagoeneko txartelak salgai ditu Leitzako Maimur eta Astiz li-

buru-dendetan eta Garbi drogerian; txartelak 25 euroan dira. Autobusa eta han egiteko duten bazkaria ere sartuta daude prezioan; «hango elizkizunak-eta eginda, bazkaldu eta arratsalde-pasa ibiltzeko aukera ere izanen dugun», azaldu zuten elizbarrutiak. Txartelak hartzeko epea, bestalde, hil honen 25ean bukatuko dela zehaztu zuten, antolakuntzaren beharregatik.

Nafarroako elizbarrutiek txandaka eta eskualdeka antolatuta ohi omen dute Bederatziruuren hau urtero. Aurten mendialdekoie egokitu zaie lan hori.

LEITZA ▶ BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA

Eta orain finalerdietan, aurrenekoa Atano III.an

Bengoetxeak eta Ruizek txartela lortuta, Martinez de Irujo-Eulate dituzte arerio

J. ASTIBIA

Donostiako Atano III.a pilotalekua izanen da Oinatz Bengoetxea leitzarregentzat, Patxi Ruiz lagun duela, Binakako Pilota Txapelketako finalerdietako aurreneko partiduko eskenatokia. Datorren igandean, 17:00etan hasiko da jaialdia han.

Behin final-laurdenetako 3. partidu korapilatsuan Titin III.a-Pascual 22 eta 12 mende-an hartu ondoren, aurrez aurre Juan Martinez de Irujo eta Pedro Martinez de Eulate bi-

koa izanen dute, sailkatu zirenetik, geldirik egon nahi ez eta bestelako partidua jokatu ari den bikote indartsua, biak hala biak ere, elkar oso ongi hartzen dutenak. Laurak ere oso gazteak, bi jardunalditan neurtuko dira.

Bi bikote hauen artean eta Olaizola anaien, Otxandorena eta Zearra atzean dituztela jokatu dituzten beste finalerdietatik aterako dira, goizenera martxoaren 12an eta beranduna 26an jokatu den final haundirako lau pilotariak.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 22a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

06

hotzena

04

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai



gaur: bai / bihar: bai



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilaria. Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Uzturpe ikastolak, Udalarekin batera, Gatazken ebazpenerako trebetasun tailerra antolatu du gurasoentzat. Bihar da izena emateko azken eguna, udalebean. 10 orduko iraupena izango du tailerrak, eta martxoaren 13, 20, 27 eta apirilaren 3 eta 5ean eskainiko du Maria Mendezek, Kultur Etxean.
Tolosa. Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietzako bazkaria antolatu dute martxoaren 12an. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84an edo 677 43 89 49an.
Tolosa. Iraupen eskia behar den bezala ikasteko, 1992-93-94-95 urteetan jaiotako gaztekoentzat ikastaroa antolatu du Alpino Uzturrek, martxoaren 4-5 eta 11-12an, Somport-Candanchun. Izen-ematea 685 776 504an.

INAUTERIAK

Amezketeta. Talai-dantza entseguak. Asteazkenetan eta ostiraletan, 20:30ean, Gazte Taldeko lokalean.
Tolosa. Arpegi taldeak Ostiral Mehean Beotibar pilotalekuan eskainiko duen *Zirkuko mutilak* izeneko ikuskizunerako sarrerak salgai Triangulo kafetegian, Cantabrico eta Atodo tabernetan, 6 eurotan.

ZINE-KLUBA

Alegia. *Deliciosa Martha.* 21:30ean, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitza, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztesarearen saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
21:00-22:30. *Bide okerretik*, euskal musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



King Bee taldeak kontzertu indartsua eskaini zuen. HITZA



Nako Goñi eta bere taldeak ia hiru orduko emanaldia egin zuten. HITZA

Blues giro aparta

ZIZURKIL ▶ IV. Blues Musika Jaialdian musikarien eta entzulegoaren artean izandako gertutasuna nabarmendu dute antolatzaileek



Miki Nervio & The Bluesmakers taldearen —goian— eta Arima Beltzaren kontzertuen une bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Aurreko hiru emanaldiekin konparatuta, aurtengo jaialdia «hobeto» joan dela deritzo Imanol Eizmendik, antolatzaileetako batek: «IV. Blues Musika Jaialdian blues estiloko musika bakarrik entzun da, eta horrek beste giro bat eman dio».

Zizurkilgo Aurrera, Egarrí eta Atxulondo tabernetan lau taldek eskaini zituzten emanaldiak. Bakoitzak bere estiloa ekarri zuen: «King Bee talde gaztea oso motibatuta eta indartsu; Miki Nervio & The Bluesmakers-ek 30. hamarkadako bluesa; Arima Beltzak blues-rocka; eta Nako Goñik and The Bluescaviudas-ek bir-tuosismoa».

Taldean jardunaz gain, pasa den larunbatean izandako giroa nabarmendu du batez ere Eizmendik: «Musikalariak oso gustura gelditu ziren. Taberna batean ematen den gertutasuna atsegin dute. Kontzertuen ondoren musikariak entzuleekin solasean aritu ziren. Eta DJ Irlak jarritako blues musikak jaialdia borobildu zuen».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Migel Ormaetxea (Orendain). Zorionak eta urte askotan zure biloba Nerearen partetik.



URTE ASKOAN
Itziar Amundarain (Amezketeta). Gaur zure urtebetetzea. Zorionak sendi guztizaren partetik, batez ere, Ibai eta Harkaltz.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!